



Zapatarixikiren ipuina

Munduan beste asko bezala, herri batean zapatari txiki bat oso pobre bizi omen zen. Behin, etxetik alde egin eta beste lurralde baten bila hasi zen, hobeto bizi izateko. Joan-ta-joan, joan-ta joan, halako batean, etxe eder baten aurrean, deitzen du atean.

–Ba al da niretzat ostatua etxe honetan?

–Pozik emango nizuke ostatua. Nire semea ordea, erraldoi bat da, ta etxera datorrenean hemen aurkitzen bazaitu, jan egingo zaitu.

–Ez dit niri axolarik, erraldoi batengatik ezta bigatik ere. –Esan omen zion Zapatarixikik.

–Sartu bada, axolarik ez bazaizu. –Gero afaria eman omen zion erraldoiaren amak eta ganbarako lasto-tokira eramanez lotara.

Han geratu omen zen Zapatarixiki lasto- tokiko txoko batean. Gau hartan zer gertatu behar ote zitzaion beldurrez, ez omen zuen logura handirik.

Geroago batean, “dan-dan-dan”, ate hotsa aditu omen zuen. Erraldoia omen zen. Etxean sartu zenerako usainka hasi omen zen:

–Hemen gizon arrotzaren bat badago.

–Bai lasto- tokian hortxe zegok gizon bat; baina erraldoi bategatik ezta bigatik ere, ez diola axolarik esan dik. – Erantzun omen zion bere amak.

–Oraintxe ikusiko dugu bada.

Halaxe esanda, eskaileak gora, lasto- tokira abiatu omen zen.

Zapatari gizagaixoak indarririk ez omen zeukan; baina bai eztarri ederra eta ahots mardula ere.

– HI, aizak! Zer behar duk hemen? Esan ezak –Deiadar egin omen zion erraldoiari.

Ez omen zen ezer ikusten, eta halako ahots izugarria entzun zuenean, erraldoia bera ere zerbait ikaratu egin omen zen.

– Ni, ni... bada adiskidetasun bila .– Esan omen zion erraldoiak.

–Hala bada ondo zegok; bestela... ez gero nirekin txantxatan ibili.

Bakeak egin omen zituen bada, ta handik aurrera elkarrekin etxe hartan bizi izateko hitz egin omen zuten.



Behin batean, urrutiko leize batera joan omen ziren. Leize hartan herensuge bat bizi omen zen, ta herensugea akabatzeko asmoa hartu zuten biek, Zapataritxik eta erraldoioak. Han egon ziren leizearen atakan, pizti hori noiz aterako ote zain.

Baina piztia agertzen ez eta, “txot ala motx” egin omen zuten, berorren bila zein barruan sartu. Zapataritxikiri tokatu omen zitzaion.

Sartu omen zen bada Zapataritxiki leizean bera bakarrik. Herensugeak ikusi zueneko, heldu hortzekin gerri-gerritik, eta kanpora omen zeraman. Erraldoiak, bere laguna herensugearen hortzetan ikusi zuenean hala, mailu batekin jo buruan ta bertan akabatu omen zuen herensugea.

Zapataritxikik, bere burua libre aurkitu zuenean, ez omen zen haserre. Baina hala ere erraldoiari, bekokia zimurtuta, zorrotz egiten omen zion:
–Herensugea zergatik akabatu duk? Mingainetik itsatsi eginda, bizi-bizirik nekarrean behar genuen lekura eramateko asmoan.
–Ba, herensugearen ahoan, hi galtzeko zorian ikusi haut nik. –Erantzun omen zion erraldoiak.
–Ez duk hori hala. Bizi-bizirik nekarrean nik, gero nahi genuena berarekin egiteko.

Inguru hartako errege batek egundainoko aberastasuna aginduta omen zeuzkan herensugearen burua eramaten zionari. Zapataritxikik, kendu burua herensugeari eta erregeari eraman omen zion.

Erregeak aberastasunez bete omen zituen, eta gure Zapataritxiki, zeharo aberastuta bere herrira bihurtu omen zen. Hori hala bazan, sartu dadila kalabazan.

*Itziar Zubizarretaren moldaketa
Pello Añorgaren abotsa*



Oharra: Tradiziozko ipuin hau, Sasi Guztien Gaietik liburu CD-an entzun daiteke, gero kontatzeko. Ipuin hau oso egokia da, zapataritxikiren abenturen bilakaera harrigarriak pozez eta atseginez betetzen ditu neskak eta mutilak.